



Sarrera



Helburuak



Jarduerak



Erreferentziak







Kredituak

Sarrera

Modulu honek komunitateko arazoaren konponketa aurkezten du ikasteko eta irakasteko estrategia gisa. Hala, bada, aplikazio "praktikoko" modulu bat da, eta 7. moduluan azaldutako [herritartasunerako hezkuntzaren](#) ideiak hartu ditu abiapuntutzat. Hezkuntza [esperimentalari](#) buruzko ideietan ere oinarritzen da, [galderetatik](#) abiatzen den eta [balioetan](#) oinarritzen den hezkuntza esperimentalari buruzkoetan, eta baita [etorkizunean arazoak konpontzeari](#) buruzko eta aurreko moduluetan agertzen den [eskolatik kanpoko ikaskuntzari](#) buruzko ideietan ere.

Komunitateko arazoak konpontzea izeneko moduluak aukera bat eskaintzen die ikasleei eurei eragiten dieten tokiko arazoei irtenbidea bilatzeko beharrezko abileziak praktikan jartzeko. Lagungarria da hori etorkizun iraunkorraren ikaskuntzarako herritarren helburu garrantzitsuak garatzeko, eta ikasleen eta irakasleen kasuan, esperientzian eta hezkuntzan oinarritutako estrategiak erabiltzeko abileziak ere barne hartzen ditu, galderetatik eta ikerketetatik abiatuta. Eman daitezkeen irtenbideen azterketaren plangintza egiteko eta irtenbide horien balioak argitzeko beharrezko abileziak ere barne hartzen ditu, hala, ikasleek etorkizun iraunkorra lortzeko zerbeit egiteko aukera izan dezaten.

Helburuak

-  *Komunitateko arazoak konpontzeko* estrategia ulertaraztea, izan ere, etorkizun iraunkorrerako hezkuntzarako erabil baitaiteke.
-  Ikasleek *Komunitateko arazoak konpontzeko* estrategian parte hartzeko behar dituzten abileziak identifikatzea.
-  *Komunitateko arazoak konpontzeko* strategiaren bidez irakasten denean sor daitezkeen galderak eta arazoak aztertzea.
-  *Komunitateko arazoak konpontzeko* proiektu baten baitan erabil daitezkeen irakasteko eta ikasteko estrategiak identifikatzea.

Jarduerak

- [1. Tokian tokiko kezkak](#)
- [2. Zer da Komunitateko arazoak konpontzea proiektua?](#)
- [3. Ikasleen abileziak garatzea](#)
- [4. Komunitateko arazoak konpontzeko estrategia erabiltzeko plana egitea](#)
- [5. Hausnarketa](#)

Erreferentziak

_____ (d/g) *Active Citizenship Today: Field Guide for Teachers*, [Close Up Foundation](#), Alexandria VA, USA.

Bardwell, L., Monroe, M. eta Tudor, M. (1994) *Environmental Problem Solving: Theory, Practice and Possibilities in Environmental Education*, North American Association for Environmental Education, Troy, Ohio.

Bull, J., Cromwell, M., Cwikiel, W., Di Chiro, G., Guarina, J., Rathje, R., Stapp, W., Wals, A., eta Youngquist, M. (1988) *Education in Action: A Community Problem Solving Program for Schools*, Thomson-Shore, Dexter, Michigan.

ELGA (1995) *Environmental Education for the 21st Century*, ELGA, Paris.

Hungerford, H. et al. (1988) *Investigating and Evaluating Environmental Issues and Actions: Skill Development Modules*, Stripes Publishing Company, EUA.

Jensen, B.B. eta Schnack, K. (1997) The action competence approach in environmental education, *Environmental Education Research*, 3(2), pp. 162-178.

Stapp, W. B., eta Wals, A.E.J. (1994) An Action Research Approach to Environmental Problem Solving, in Bardwell, L., Monroe, M. and Tudor, M. (1994) *Environmental Problem Solving: Theory, Practice and Possibilities in Environmental Education*, North American Association for Environmental Education, Troy, Ohio.

Stapp, W., Wals, A. eta Stankorb, S. (argit.) (1996) *Environmental Education for Empowerment*, Kendall/Hunt, Dubuque.

Wals, A.E.J. (1996) Back-alley sustainability and the role of environmental education, *Local Environment*, 1(3), 299-316. or.



Interneteko guneak

[Community Problem Solving project at Harvard University](#)

[Earth Force Youth Action Programme](#)

[On the Line](#) - The Countries of The Greenwich Meridan

Points of Light Youth Action Programme

Kredituak

Modulu hau Bernard Cox-ek, Margaret Calder-ek eta John Fien-ek idatzi zuten UNESCOrako, eta Eureta Janse van Rensburg-ek eta Debbie Heck-ek idatzitako *Learning for a Sustainable Environment* (UNESCO - ACEID) lanean agertutako materialetan eta jardueretan oinarritu ziren.











1. jarduera: Tokian tokiko kezkak



Hasteko, zabaldu jarduera honi dagokion [ikaskuntza-galdetegia](#).

Zer itxura izango luke zure komunitateak etorkizun iraunkorrerantz abiatuko balitz?

Honako hauek egongo lirateke?:

-  ingurumen garbi eta segurua
-  ekonomia bizia eta askotarikoa
-  etxebizitza egokia guztientzat
-  elkar errespetatzen duen eta elkarri laguntzen dion jendea?
-  ondare kulturalaren, historikoaren eta naturalaren ospakizunak
-  lankidetzeta eta boterea partekatzea herritarren eta gobernuaren artean
-  guztiontzako osasun-arreta
-  ikastetxe onak

Puntu horiek guztiak [komunitate iraunkor](#) eta osasuntsu baten ezaugarriak dira.

Komunitateko arazoak konpontzea proiektua helburu hori lortzeko urratsez urrats lan egiteko estrategia da.

Modulu honekin hasteko, tokiko komunitatean bertan gaiak eta arazoak aztertuko ditugu.



1.G.: Prestatu zerrenda bat kezkarriak iruditzen zaizkizun zure komunitateko bost gai edo arazorekin.

[1. moduluan [bederatzi puntu nagusiren](#) tokiko adibideak identifikatu zenituen (5. galdera), eta [galdetegi estrategikoaren](#) prozesuaren bitartez horietako baten ikerketa sakona egin zenuen. Baliagarria izan dakizuke jarduera haietan sortutako ideiak berrikustea eta zure zerrenda egiteko abiapuntu moduan erabiltzea.]

2.G.: Arazo horietako edozeini konponbidea aurkitzeko orduan erabilgarri gerta dakizkizukeen zer abilezia edo esperientzia dituzu?

3.G.: Zer ari zara egiten une honetan arazo horiek konpontzen laguntzeko?



2. jarduera: Zer da Komunitateko arazoak konpontzea?



Hasteko, zabaldu jarduera honi dagokion [ikaskuntza-galdetegia](#).



Komunitateko arazoak konpontzeari buruzko kasu-azterketa bat






Irakurri honako kasu-azterketa hau: [Park Beach-eko kostaldea zaintzeko proiektua](#).

Australian ikasle talde batek beren ikastetxetik gertu dagoen hondartza bat leheneratzen nola lagundu zuen azaltzen duen txosten bat da.

Kasu-azterketa lantzea lagungarri izango da komunitateko arazoak konpontzea zer den argitzeko.



4.G.: Erantzun kasu-azterketari buruzko ondoko galdera hauei:









-  Zer sentitzen duzu kasu-azterketa honetan aurkeztu ditugun egoerei eta ekintzei buruz?
-  Zure ustez, zein izan ziren ikaskuntzaren emaitzak ikaslearentzat?
-  Zertan desberdintzen dira kasu-azterketa honetan erabili ziren irakasteko eta ikasteko estrategiak eta zure ikastetxean erabiltzen direnak?
-  Zer abilezia behar izan zituen irakasleak modu horretan irakatsi ahal izateko?
-  Zure ustez, zer arazo izango zituzten kasu-azterketa honetako irakasleek jarduera hau ikasketa-planean txertatu zutenean?

Komunitateko arazoaren konponketa irakasteko eta ikasteko estrategia bat da, eta ikasleei beren komunitateko arazoak konpontzeko modu aktiboan parte hartzen ikasten laguntzen die, hala, etorkizun iraunkorragoa lortu ahal izateko.



Komunitateko arazoak konpontzeko urratsak

Komunitateko arazoak konpontzeko prozesuan ikasleak orientatzeko zortzi urrats nagusi daude:

-  Jokatzea
-  Arazoak aukeratzea
-  Ikertzea
-  Ekintzen plangintza egitea
-  Komunitatearen kezkak aztertzea
-  Ikasleen abileziak ebaluatzea eta garatzea
-  Etorkizun iraunkorrerako idealak garatzea
-  Ekintzak eta aldaketak ebaluatzea



5.G.: Aztertu 15. eta 24. moduluetako [kasu-azterketa](#). Nepalgo Geografiako talde bati buruzkoa da, eta bere herrian tokiko garapen-plan iraunkor bat prestatu zuen talde horrek. Identifikatu aurreko zortzi urratsetatik zein erabili ziren eta zein ordenatan

erabili zituzten.

6.G.: Erabili Park Beach eta Nepalgo kasu-azterketei buruz dituzun ezagutzak irakasteko eta ikasteko estrategia moduan, komunitateko arazoaren konponbidearen lau ezaugarri berezi identifikatzeko.

7.G.: Azaldu nola erabil dezakezun komunitateko arazoak konpontzeko ikuspegia ikasleak tokiko gaiaren edo arazoaren azterketan gidatzeko.

Aztertu ikasleek [tokiko garraioarekin lotutako arazoak](#) konpontzeko prozesuan parte hartzeko irakaskuntza-gida bat.



Irakurri *Earth Force* erakundearen Ekintza komunitarioa eta arazoaren konponbidea programari buruzko informazioa.



Zerbitzu komunitarioaren bidezko ikaskuntza

Zerbitzu komunitarioaren bidezko ikaskuntzaren bitartez, ikasleak beren komunitateetako hainbat proiektutan lan egiteko prest agertzen dira (ez dute nahitaez arazoak konpontzeko proiektuak izan behar), eta ikaskuntza mota horrek tradizio luzea du hainbat herrialdetako hezkuntzan. Zerbitzu komunitarioaren bidezko ikaskuntza-proiektuen adibide batzuk honako hauek izan daitezke: ospitale batean boluntario gisa laguntzea, Lehen Hezkuntzaren aurreko eskola batean edo komunitateko beste zentro batean laguntzea, ingurunea zaintzeko gazteen proiektu batean lan egitea edo gai jakin batekin lotutako hezkuntza eta informazio komunitarioko kanpaina bat prestatzea.

Zerbitzu komunitarioaren bidezko ikaskuntza, etorkizun iraunkorra lortzeko idealetan oinarrituta jokatzeko ikasleek eta ikastetxeek aukeratzen duten ekintza bateratua da; ideal horiek komunitateko arazoak konpontzeko proiektu batean garatzen dira, eta ideal horiek lortzea da helburua.

Zerbitzu komunitarioaren bidezko ikaskuntzari buruz duela gutxi egindako ebaluazio batean, zerbitzu horrek ikasleengan dituen ondorio nagusiak aztertu ziren:

- Ikasleen % 95ek baino gehiagok adierazi zuten gustura zeudela zerbitzu komunitarioan izandako esperientziarekin, eta egin zuten zerbitzua lagungarria izan zela komunitatearentzat eta laguntza eman zieten pertsonentzat.
- Ikasleen % 90ek baino gehiagok uste zuten ikasle guztiak bultzatu behariko liriatekeela zerbitzu komunitarioetan parte hartzera.
- Ikasleen % 87k esan zuten etorkizunean baliagarria izango zaien abilezia bat ikasi zutela.
- Ikasleen % 75ek esan zuten gehiago ikasi zutela zerbitzu komunitarioan eskola arrunt batean baino.
- Ikasleen % 40k, gutxi gorabehera, esan zuten zerbitzu komunitarioaren esperientziak etorkizunean egingo zuten karrerari edo lanari buruz pentsatzen eta/edo horri buruzko informazioa eskuratzen lagundu ziela.





Ikasleek herritarrekiko agertu zituzten jarreretan izandako ondorioak ere oso garrantzitsuak izan ziren. Eragin positiboa eta estatistikoki garrantzitsua erakutsi zuten ikasleek herritarren garapena neurtzeko hiru puntuetan:

- Kultura-aniztasuna onartzea
- Lidergoa zerbitzuan eta

Gizalegezko jarrerren emaitza orokorra.

Gizalegezko jarrerren eta jarrera sozialen gaineko eragina nabarmenagoa izan zen azterketan parte hartu zuten unibertsitate aurreko hezkuntzako ikasleengan. Ikaskuntza-programetan zerbitzu komunitarioaren bitartez parte hartu zutenek eragin handia erakutsi zuten zerbitzuko lidergoari eta gizalegezko jarrera orokorreari dagokienez, baina aniztasunarekiko jarreretan, aldiz, eragina txikiagoa izan zen. Aldiz, Bigarren Hezkuntzako ikasleek aurrerapenak egin zituzten gizalegezko jarreretan, baina aurrerapen horiek ez ziren estatistikoki nabarmenak izan.

Gizalegezko jarrerekin lotutako eragin handiena zerbitzuko lidergoan ikusi zen, horixe izan baitzen ikasleek zerbitzuarekiko zuten jarreraren neurketa zuzenena. Alderdi horretan ikasleek honako hauek sentitu zituztela adierazi zuten:

-  beren komunitateetan zituzten beharrez jabetu zirela esan zuten,
-  gauzak aldatzen lagun zezaketela uste zuten,
-  bazekiten zerbitzu komunitarioko proiektu bat nola diseinatu eta garatu, eta
-  zerbitzu komunitarioarekin konpromisoa hartu zuten orduan eta betiko.

Puntu horiek guztiak herritartasun aktiboari egiten zaion ekarpen argiaren eta positiboaren adierazle egokiak dira, hala, etorkizun iraunkorra lortu ahal izateko.

Iturria: *Summary Report: National Evaluation of Learn and Serve America School and Community-Based Programs*, The Center for Human Resources-ek [The Corporation for National Service](#)-rako prestatua, Brandeis University, Estatu Batuak, 1999.



Australian Park Beach-eko kostaldea zaintzeko proiektua

Sorrell Estatu Ikastetxearen ondoko hondartza, Australian, ez zen toki erakargarria. Dunak higatzen ari ziren eta "hezur-landare" (*Chrysanthemoides monilifera*) izeneko landare inbaditzailea tokiko landaredia itotzen eta ordezkutzen ari zen. Jendeak botatako zaborrak eta hondakinak zeuden hondartzan, eta komunak ere egoera txarrean zeuden.

Ikastetxeko irakasleek eta ikasleek laguntza eskatu zioten tokiko surf-taldeari, eta, elkarrekin, erabilera- eta administrazio-plan bat prestatu zuten.

Plan horren helburuak honako hauek ziren: higaduraren aurrean dunak babestea, belar txarrak kentzea eta ingurua toki ederra eta segurua bihurtzea, inguru hori bisitatzea atsegina izan zedin. Plan horretan gomendatzen zituzten ekintzen artean honako hauek zeuden:

- Dunak hesitzea eta hondartzaraino joateko oinezkoentzako bide bat eraikitzea.
- Hezur-landarea eta beste belar txar batzuk kentzea eta tokiko landareak sartzea haien orde.
- Begiratoki bat eraikitzea, aulki gurpildunarekin igotzeko sarbidea ere izango zuena.
- Komunen ingurua txukuntzea, ur-tankeetan horma-irudiak marraztuz.
- Aparkalekuan itzala emango zuten zuhaitzak landatzea.
- Janaria erretzeko eta egun pasak egiteko inguru bat jartzea.
- Zaborrontzi gehiago jartzea.
- Garbitzeko jardunaldiak antolatzea aldian-aldian.
- Aparkalekuaren ondoan komunitatearen iragarki-taula bat jartzea.

Ikasleek gutunak idatzi zizkieten zerbitzu komunitarioan lan egiten zuten tokiko elkarteei, Leones y Rotarios elkarteei, adibidez, eta baita Sorrellgo Udalari ere, eta hizketaldiak egin zituzten haiekin. Talde horietako kide batzuk elkartu egin ziren eta Park Beach-eko Kostaldea Zaintzeko Taldea osatu zuten. Hainbat eskabide bidali zizkieten gobernuari, eta horrek 5 500 dolarreko laguntza eman zien beren erabilera- eta administrazio-plana aurrera eramateko.

Horrez gain, taldeak jaialdiak antolatzen ditu hondartza-inguruan, Australiako garbitasunaren eguna eta Ozeanoa zaintzeko eguna ospatzeko. Harearrizko labarretatik graffitiak kendu dituzte, eta inguru horretan hezur-landarea jaten duten kakalardoak askatzeak zer-nolako eragina duen aztertzen dute.

Park Beach-eko kostaldea zaintzen duen taldeko koordinatzaileak hauxe esan zuen:

“

Proiektuak aukera paregabea eskaintzen du Sorrell ikastetxeko haurrek tokiko ingurumenari buruz, ingurumenaren degradazioari buruz eta kaltetutako lurra leheneratzeko beharrezko zainketari, pazientziari eta epe luzeko konpromisoari buruz ikas dezaten. Proiektuak, bestalde, baliabideak eta komunitateko taldeak koordinatzeko aukera ematen dio ikastetxeari, hala, helburuak lortu ahal izateko. Erabilera- eta administrazio-planak ikastetxean landu eta eztabaidatu ziren. Haurrek prestatu zuten inguru horretan garatzeko erabilera- eta administrazio-plana.

”

Iturria: K. Willing, kostaldea zaintzeko koordinatzaile tasmaniarra, Australia.







Inprimatu

3. jarduera: Ikasleen abileziak garatzea











Hasteko, zabaldu jarduera honi dagokion [ikaskuntza-galdetegia](#).






Komunitateko arazoak konpontzeko estrategiaren bidez ikasten dutenean, ikasleek abilezia ugari erabiltzen dituzte. Hauek dira abilezien artean bereizten diren lau kategoriak:

-  [Taldeko prozesuetan integratzeko abileziak.](#)
-  [Informazio lortzeko eta biltzeko abileziak.](#)
-  [Aztertzeko eta erabakiak hartzeko abileziak.](#)
-  [Jokatzeko eta ebaluatzeko abileziak.](#)

Hauek dira taldeko prozesuetan integratzeko abilezien arloko zenbait adibide:





-  Talde batean hainbat funtzio hartzea eta, egoki denean, lider bihurtzea.
-  Ideiak entzutea eta ulertzea.
-  Ideiak argi eta garbi adieraztea.
-  Besteak aintzakotzat hartzea eta errespetatzea.
-  Besteentzat berrelikadura konstruktiborako bide izatea.
-  Taldean erabakiak hartzeko askotariko prozesuak aztertzea.
-  Taldea lanean ari denean duen jokabidea gainbegiratzea.
-  Zereginei esleitzen zaien denbora gainbegiratzea.

Hona hemen informazioa lortzeko eta biltzeko abilezien zenbait adibide:




-  Liburutegia erabiltzea, inprimatutako baliabideak nahiz baliabide elektronikoak barne hartuta.
-  Informazioa biltzeko estrategiak, espezifikoki ikertuko den arazoari dagozkionak, diseinatzea.
-  Ikerketa egiteko, teknika zientifikoak eta gizarte-zientzietatik datozenak erabiltzea (uraren kalitatea aztertzeko probak, inkesta sozialak eta abar, adibidez).
-  Ikerketarako garrantzia duten agentziak, erakundeak eta komunitateko kideak identifikatzea.
-  Informazioa eskatzea gutunen, telefono-deien edota posta elektronikoaren bidez.

Aztertzeko eta erabakiak hartzeko abilezien zenbait adibide dira hauek:

-  Teknika zientifikoaren bidez eta gizarte-zientzietako tekniken bidez informazioa aztertzea.

-  Izan daitezkeen aukerei buruz modu kritikoan eta sormenez pentsatzea.
-  Norberaren balioak eta besteenak aintzakotzat hartzea.
-  Ekintzak zer norabide hartu behar duen erabakitzea.
-  Erabakiak justifikatzea.

Hona hemen jokatzeko eta ebaluatzeko abilezien zenbait adibide:

-  Ekintza-plan batean zer pauso emango diren erabakitzea.
-  Askatasunez ekintza horiek gauzatzea aukeratzea.
-  Garatutako ekintzek ekarritako aldaketek arazoaz arduratzeko bidea eman duten ebaluatzea.

Iturria: hemendik egokitua: Bull, J., et al., *Education in Action: A Community Problem Solving Program for Schools*, Thomson-Shore, Dexter, Michigan, 1988, 267-269. or.



Abilezien irakaskuntza

Irakasle trebe batek baino ezin dizkie irakatsi abileziak ikasleei.

Gogoan hartu berriki ikasleei abileziaren bat irakatsi diezun ikasgairen bat. Gogoratu zer egin zenuen lehenbizi, nola segitu zenuen, eta zer egin zuten ikasleek ikasgai horretako pauso bakoitzean. Adibidez, abilezia bat aztertuz has zaitezke, zer atal dituen identifikatzeko; eta, ondoren, ikasleei aurkez diezaiekezu.

8.G.: Idatzi zerrenda batean abilezia berri bat irakasterakoan zuk ematen dituzun pausoak.



Galdetegia

Konparatu zure ideiak [lagin-zerrenda batekin](#).



4. jarduera: Komunitateko arazoak konpontzeko estrategia erabiltzeko plana egitea



Hasteko, zabaldu jarduera honi dagokion [ikaskuntza-galdetegia](#).

Hauek dira komunitateko arazoak konpontzeko estrategia erabiltzean sor daitezkeen zailtasun batzuk:

- Agian, askori bitxia gertatuko zaie irakasleak aztertu nahi duten gaia aukeratzeko uztea, ez dutelako horretarako ohiturarik (adibidez, tokiko arazoren bat).
- Ikasle batzuk nahastuta geldituko dira, irakasleak arazo bat planteatzen dienean, baina irtenbiderik ematen ez dienean
- Ikasle batzuek kontzentrazioa galtzen dute gelatik irtetean eta tokiko jarduera bat egitera eramaten dituztenean.
- Batzuetan, ikasleei interesatzen zaizkien tokiko arazo batzuk oso polemikoak izan daitezken komunitatean.



9.G.: Identifikatu irakaskuntzaren inguruko zenbait ideia, goian adierazitako arazoak edo antzekoak saihesteko baliagarri izan daitezkeenak.



Gaia aukeratzea

Ikasleek iker dezaketen gai bat aukeratzea funtsezko alderdia da komunitateko arazoei konponbidea bilatzeko estrategia bat planteatzerakoan.

Ondoren datozen irizpide hauek lagungarri izan daitezke zuretzat eta zure ikasleentzat, proiektu eta leku bat aukeratzeko orduan:

- Lekuek ikasleentzat erraz iristeko modukoak izan behar dute.
- Leku horiek ezin dute izan ikasleen segurtasuna arriskuan jar dezakeen ezer.
- Ikasleek dituzten abilezien eremuen barnean landu behar dira proiektuak.
- Komunitateak arazo hori konpontzeko benetako beharra izan behar du.
- Ikasleek argi izan behar dute arazo hori garrantzi handikoa dela beraientzat.



10.G.: Sailkatu irizpide hauek, garrantziaren arabera ordenatuz.

Garrantzi handia du arazoak aukeratzeko irizpide horiek gogoan izateak. Hala ere, esperientziak argi eta garbi erakutsi digu irakasleak motibatuago sentitzen direla beraiek aukeratutako arazoak lantzen dituztenean.

11.G.: Identifikatu komunitateko arazoak konpontzerakoan eman beharreko zortzi pausoetako bakoitzean erabil daitezkeen irakasteko eta ikasteko zenbait jarduera garrantzitsu.

[ikaskuntza-galdetegian, pauso bakoitzerako adibide bat eskaintzen da. Beste modulu batzuetan azaldu ziren jarduerak egokitu eta molda daitezke, pauso hauetan erabili ahal izateko.]



5. jarduera: Hausnarketa



Galdetegia

Hasteko, zabaldu jarduera honi dagokion [ikaskuntza-galdetegia](#).



Modulua osatzeko: egin atzera, eta berrikusi jarduerak eta lanak, guztiak egin dituzula ziurtatzeko eta orain, modulua amaitu ondoren, zure ustez hobetu dezakezuna aldatzeko.



Galdetegia

13.G.: Identifikatu irakasten ari zaren horretan komunitateko arazoek konponbiderako zortzi pausoak txertatzerakoan izan ditzakezun zailtasunak eta aukerak.

14.G.: Zure taldean komunitateko arazoak konpontzeko estrategia erabili ondoren, berrikusi eta aztertu prozesua, horrelako galderak eginez:

- 🍎 Komunitateko arazoak konpontzeko proiektuan, zer alderdik izan dute arrakasta?
- 🍎 Planteatu beharreko alderdien artetik ezer ahaztu zaizu?
- 🍎 Landa-lanari ekin aurretik zure ikasleek prestakuntza handiagoa behar zutela uste duzu? Zer arlotan?
- 🍎 Zer aldaketa egingo dizkiozu proiektuari beste talde batekin erabili aurretik?





1. jarduera – Tokian tokiko kezkak

1.G.: Prestatu zerrenda bat kezkarriak iruditzen zaizkizun zure komunitateko bost gai edo arazorekin.

| |
|----|
| 1. |
| 2. |
| 3. |
| 4. |
| 5. |

2.G.: Arazo horietako edozeini konponbidea aurkitzeko orduan erabilgarri gerta dakizkizukeen zer abilezia edo esperientzia dituzu zuk?

| |
|--|
| |
|--|

3.G.: Zer ari zara egiten une honetan arazo horiek konpontzen laguntzeko?

| |
|--|
| |
|--|

2. jarduera – zer da *Komunitateko arazoak konpontzea* proiektua?

4.G.: Erantzun kasu-azterketari buruzko ondoko galdera hauei.

Zer sentitzen duzu kasu-azterketa honetan aurkeztu ditugun egoerei eta ekintzei buruz?

| |
|--|
| |
|--|

Zure ustez, zein izan ziren ikaskuntzaren emaitzak ikaslearentzat?

Zertan desberdintzen dira kasu-azterketa honetan erabili ziren irakasteko eta ikasteko estrategiak eta zure ikastetxean erabiltzen direnak?

Zer abilezia behar izan zituen irakasleak modu horretan irakatsi ahal izateko?

Zure ustez, zer arazo izango zituzten kasu-azterketa honetako irakasleek jarduera hau ikasketa-planean txertatu zutenean?

5.G.: Identifikatu eta esan zortzi pausoetatik zein erabili ziren, eta zer ordenatan.

6.G.: Erabili Park Beach eta Nepalgo kasu-azterketei buruz dituzun ezagutzak irakasteko eta ikasteko estrategia moduan, komunitateko arazoaren konponbidearen lau ezaugarri berezi identifikatzeko.

| |
|----|
| 1. |
| 2. |

3.

4.

7.G. : Azaldu nola erabil dezakezun komunitateko arazoak konpontzeko ikuspegia ikasleak tokiko gaiaren edo arazoaren azterketan gidatzeko.

Komunitateko arazoak konpontzeko estrategia aztertzea

Name a problem in your community that you think students would be interested in solving.

Arazo bat aukeratzea

Zergatik du garrantzia zure komunitaterako?

Une honetan arazo horri aurre egiteko abileziak badituzte zure ikasleek?

Gai zehatz horretan, baduzu denborarik komunitateko arazoaren konponbiderako prozesu osoaz arduratzeko, edo hobe litzateke zure ustez arazo txikiago bat lantzen hastea?

Ikasleen abileziak ebaluatzea eta garatzea

Zer abilezia izan behar dituzte zure ikasleek komunitateko arazoak konpontzeko

estrategiarako?

Zure ustez zer-nolako orientabidea eska diezazukete?

Ikertzea

Zein da gaur egun zure komunitateko arazo horren egoera?

Gai horrekin lotuta, zure komunitateko taldeen artean ba al dago interes-gatazkarik?
Horrela bada, zein dira??

Arazo horri irtenbidea aurkitzeko, nola har daitezke erabakiak?

Idealak garatzea

Arazo honen inguruan zer-nolako idealak dituzte ikasleek etorkizunerako?

Zer aukera daude?

| |
|--|
| |
|--|

Zer ideal dute gustukoen, eta zergatik?

| |
|--|
| |
|--|

Ekintzen plangintza egitea

Gaur egungo egoera zer aldaketaren bidez hurbilaraz daiteke etorkizun iraunkor baterako dituzten idealetara?

| |
|--|
| |
|--|

Horrelako aldaketak egin ahal izateko zer oztopo gainditu behar dira nahitaez?

| |
|--|
| |
|--|

Idatzi zerrenda batean aldaketa horiek egin ahal izateko eman beharreko pausoak. Horixe izango da ekintza-plana..

| |
|--------------|
| 1. |
| 2. |
| 3. |
| 4. |
| 5. |
| Beste batzuk |

Nola ebalua daiteke ekintza-plana?

| |
|--|
| |
|--|

Jokatzea

Planteatutako ekintzek nola konpon dezakete arazoa?

Ekintza horien inguruko erabakiak hartzerakoan, zer leku betetzen dute ikasleek?

Ekintzak eta aldaketak ebaluatzea

Zer ekintza egin dira?

Zer aldaketa egin dira?

Buruan genuen ideala abiapuntutzat hartuta, zenbateraino dira haren berdinak aldaketa horiek?

Nola gainditu dira oztopoak?

Zer ikasi dute *Komunitateko arazoak konpontzeko* estrategiaren bidez?

3. jarduera - Ikasleen abileziak garatzea

8.G.: Idatzi zerrenda batean abilezia berri bat irakasterakoan zuk ematen dituzun pausoak.

| |
|--|
| |
|--|

4. jarduera - Komunitateko arazoak konpontzeko estrategia erabiltzeko plana egitea

9.G.: Identifikatu irakaskuntzaren inguruko zenbait ideia, arazoei aurrea hartzeko eta arazoak saihesteko bidea eman dezaketenak; horrelakoak, adibidez:

| Arazoa | Irakaskuntzarako ideiak |
|--|-------------------------|
| Agian, askori bitxia gertatuko zaie irakasleak aztertu nahi duten gaia aukeratzen uztea, ez dutelako horretarako ohiturarik (adibidez, tokiko arazoren bat). | |
| Ikasle batzuk nahastuta geldituko dira, irakasleak arazo bat planteatzen dienean, baina irtenbiderik ematen ez dienean. | |
| Ikasle batzuek kontzentrazioa galtzen dute gelatik irtetean eta tokiko jarduera bat egitera eramaten dituztenean. | |
| Batzuetan, ikasleei interesatzen zaizkien tokiko arazo batzuk oso polemikoak izan daitezken komunitatean. | |
| (Beste arazoren bat aurrera zenezake?) | |

10.G.: Sailkatu irizpide hauek, garrantziaren arabera ordenatuz.

| | |
|--|-----------------------------------|
| | Ordena 1 = garrantzirik |
|--|-----------------------------------|

| | |
|---|--|
| | handiena 5 = garrantzirik txikiena |
| Lekuek ikasleentzat erraz iristeko modukoak izan behar dute. | |
| Leku horiek ezin dute izan ikasleen segurtasuna arriskuan jar dezakeen ezer. | |
| Ikasleek dituzten abilezien eremuen barnean landu behar dira proiektuak. | |
| Komunitateak arazo hori konpontzeko benetako beharra izan behar du. | |
| Ikasleek argi izan behar dute arazo hori garrantzi handikoa dela beraientzat. | |

11.G.: Identifikatu komunitateko arazoak konpontzerakoan eman beharreko zortzi pausoetako bakoitzean erabil daitezkeen irakasteko eta ikasteko zenbait jardura garrantzitsu. ikaskuntza-galdetegian, pauso bakoitzerako adibide bat eskaintzen da. Beste modulu batzuetan azaldu ziren jarduerak egokitu eta molda daitezke, pauso hauetan erabili ahal izateko

| Pausoak | Irakasteko eta ikasteko jarduerak |
|--|--|
| 1. Komunitateko arazoak konpontzeko estrategia aztertzea | Kontatu talde komunitario batek arazo bati irtenbidea nola eman zion azaltzen duen historia bat (19. modulu). * |
| 2. Arazo bat aukeratzea | Galdetegi estrategikoa (1. modulu). * |
| 3. Ikasleen abileziak ebaluatzea eta garatzea | Erabili rol-joko bat, balioen azterketan ikasleen abileziak garatzeko. * |
| 4. Ikertzea | Ikasleek binaka lan egingo dute, komunitatean gertatutako aldaketak |

| | |
|--------------------------------------|---|
| | <p>ikertzeko eta arlo horretan pertsonak nola sentitzen diren ikusteko.</p> <p>*</p> |
| 5. Idealak garatzea | <p>Ikasleek etorkizunerako idealak landu ditzaten, erabili etorkizun "hobeei" eta "probableei" buruzko ariketa (2. modulua).</p> <p>*</p> |
| 6. Ekintzen plangintza egitea | <p>Erabili <i>Etorkizunari begira arazoak konpontzeko</i> estrategia, ekintza-plan bat garatu ahal izateko (23. modulua).</p> <p>*</p> |
| 7. Jokatzea | <p>Taldeak bere ekintza-plana aurkeztuko dio udaleko buruari, ordezkariari edo herri-agintariari (24. modulua).</p> <p>*</p> |
| 8. Ekintzak eta aldaketak ebaluatzea | <p>Gonbidatu komunitateko norbait, aldaketek beregan zer eragin izan dituen azaltzeko.</p> <p>*</p> |

5. jarduera - Gogoeta

12.G.: Ikasgelako planaren lagin honetan, erabilgarriak al dira komunitateko arazoak konpontzeko estrategiaren bidezko irakaskuntzarako jarraibideak? Zergatik?

13.G.: Identifikatu irakasten ari zaren horretan komunitateko arazoaren konponbiderako zortzi pausoak txertatzerakoan izan ditzakezun zailtasunak eta aukerak.

14.G.: Zure taldean komunitateko arazoak konpontzeko estrategia erabili ondoren, berrikusi eta aztertu prozesua, horrelako galderak eginez.

Komunitateko arazoak konpontzeko proiektuan, zer alderdik izan dute arrakasta?

Planteatu beharreko alderdien artetik ezer ahaztu zaizu?

Landa-lanari ekin aurretik zure ikasleek prestakuntza handiagoa behar zutela uste duzu? Zer arlotan?

Zer aldaketa egingo dizkiozu proiektuari beste talde batekin erabili aurretik?

Ba al duzu iruzkinik egiteko, edo ezer esateko?